

Euskadiko auzolandegiak eta Nafarroakoa

Alonsotegi

Alonsotegiko auzolandegian, “Urreituri/Fuente del Oro” izeneko atsedenekua zaharberritu eta hobetuko da uztailaren 4tik 18ra bitarte, eta 18-26 urteko eta dibertsitate funtzionala duten 18-30 urteko gazteek hartuko dute parte. 20 plaza egongo dira, estatu-mailakoa izango da, eta gaztelaniaz eta euskaraz hitz egingo da.

Urreituri atsedenekua Bilbotik kilometro gutxira dago, eta Alonsotegiko “Meategien eta Gatzaren Ibilbidearen” parte da. Urreituri atsedenekura jende asko joaten da, udan batez ere. Auzolandegi horretan egin beharreko zereginak honako hauek izango dira: inguruneko **arkitektura-elementuak zaharberritzea**, babes-elementuak egokitu eta hobetzea, ibaia garbitzea eta eremuko hainbat elementuren garrantzia agerian uztea.

Arraia-Maeztu

Araban dagoen **Izkiko** Parke Naturalaren erdian, mendiz eta harkaitzez inguratuta eta haran txiki batean kokatuta, Korresko udalerrria dago, eta bertan dago *San Ildefonso* asfalto-fabrika. Asfalto-fabrika XIX. mendean jarri zen abian. 1858tik 1913ra bitarte iraun zuen. 55 urte horietan, Estatuko lehen asfalto-ustategia eta handiena izan zen. Meatzegune eta asfaltozko xafla eta lauza txikien fabrika hori 8 eraikinez eta hainbat patioz edo ibiltzeko gune irekiz osatuta zegoen.

XIX. mendeko industria-ondarea berreskuratzeko proiektu horren bidez, Arraia-Maeztuko Udalak, **Auzolandegiaren** laguntzarekin, toki-identitatearen sendotzea bultzatu eta dinamizatzeko jarduketara bat egin du udalerrian. 2016. urteaz geroztik, Korresko udalerrian kokatutako San Ildefonso asfalto-fabrika berreskuratu eta birgaitzera bideratutako hainbat esku-hartze arkeologiko egin dira.

2022ko udarako, guneko eremu berri batzuetarako sarbidea emango duten hainbat leku **induskatzen** amaitu nahi da. Indusketa horien bidez, landaredia garbitzeaz gain, antzinako fabrikako beste eremu batzuk ezagutu eta industrian erabiltzen zen materiala aurkitu nahi da.

Bergara

Bergarako auzolandegian, belaunaldien arteko elkartrukea landuko da **Mizpirualde egoitzan, adinekoen gizarte-dinamizazioaren bitartez**. Abuztuaren 1etik 15era eta abuztuaren 15etik 29ra bitarte egingo da, 18-26 urtekoentzat eta dibertsitate funtzionala duten 18-30 urtekoentzat, eta 20 plaza egongo dira txanda bakoitzean. Estatu-mailakoa izango da, eta euskara eta gaztelania izango dira oinarritzko hizkuntzak.

Mizpirualde adinekoen egoitzan, Bergarako eta inguruko beste herri batzuetako 100 pertsona baino gehiago daude. Bergarako Udalaren ustez, egokia da Mizpirualdeko egoiliarren eta gazteen arteko harremanen elkartrukea, elkar ezagutzeko eta elkarri laguntzeko aukera ematen baitie.

Gazteak hainbat lekutan egoiliarrekin egotearen alderdi positiboen artean, honako hauek azpimarra daitezke: errutina haustea, gazteen eta adinekoen arteko harremanaren ondorioz emozio positiboak sortzea eta egoiliarren narriadura kognitiboaren aurkako estimulazioa. Gainera, ekintza egokia da gizartean **txertatzeko** eta parte hartzeko helburua lortzeko.

Egingo diren jardueren artean, honako hauek aipa daitezke: **egoiliarrei** egunkaria irakurtzen laguntzea, kartetan aritzea, pasealdi eta irteeretan laguntzea, psikomotrizitate-jarduerak, aisia- eta jolas-jarduerak, jaiak eta jardura ludikoak antolatzea, harremanak sendotzera bideratutako ekintzak eta adinekoen egoitzaz kanpoko harremanak erraztuko dituzten beste batzuk.

Erandio

Erandio/Martiatuko auzolandegian, ondare historiko eta naturalaren berreskuratzea landuko da, eta, horretarako, Erandioko **landa-bideen ingurune berdea zaharberritu, berroneratu eta hobetu egingo da**. Auzolandegia uztailaren 4tik 18ra bitarte egingo da, eta 18-26 urteko eta dibertsitate funtzionala duten 18-30 urteko gazteek hartuko dute parte. 20 plaza daude, eta euskara eta gaztelania funtzionala erabiliko dira.

Proiektuak **Erandioko landa-eremuko bide publikoak** berreskuratzea, garbitzea eta balio handiagoa ematea planteatzen du. Era berean, bizikidetzat, tolerantzia, elkartasuna eta parte-hartzea sustatu nahi dira gazteengan. Horrez gain, udalerriko ondare natural aberatsa zabaldu nahi da herritarrengan.

Horretarako, honako jardura hauek egingo dira: iturriak eta iturburuak garbitu, **zaharberritu** eta izendatzea, bide historikoak eta bidexkak berreskuratu eta markatzea, udal-artxiboan eta foru-artxibo historikoan inguru horri buruzko informazio historiko garrantzitsua bilatzea, eta **Martiatuko Dorrea** garbitzea eta haren balioa agerian jartzea.

Lekeitio

Lekeitioko auzolandegian, **Uribarren Abaroa** egoitzaren dinamizazioa landuko da, eta **adineko egoiliarrei zuzendutako jardueretan lagunduko da**, uztailaren 18tik abuztuaren 1era eta abuztuaren 1etik 15era bitarte. 18-26 urteko gazteek hartuko dute parte, eta bi plaza egongo dira dibertsitate funtzionala duten gazteentzat, txandaka. Ohiko auzolandegia da, gizarte-esparrukoa, eta adinekoen garapen integralaren alde lan egitea du helburu nagusi. Halaber, gazteen elkartasun-gaitasunak sustatzen dira.

Egiten den jarduera oso lotuta dago adinekoen presentzia, dinamizazio eta laguntzarekin, eta honako hauek nabarmentzen dira: psikomotrizitate fineko jarduerak, laguntza ibilbideetan, aisia-ekintzen dinamizazioa, **jaiak eta joko kolektiboak antolatzea**, eta egoiliarren arteko harremanak eta herriko jendearekiko lotura sendotzea. Egoitzako gizarte-hezitzaileek bidezko laguntza emango diote gazte taldeari.

Lemoa

LEMOATXA 1937 auzolandegia Lemoan egingo da, eta jarduera **Lemoatx mendiko tontorrean dauden lubakien eremua berreskuratzea** izango da. Abuztuaren 1etik 15era bitarte egingo da, eta 18-26 urteko gazteek hartuko dute parte. Halaber, bi plaza egongo dira dibertsitate funtzionala duten 18-30 urteko gazteentzat.

2022. urtean, zortzigarren aldiz egingo da auzolandegia, eta **lubaki-eremu** bat eta memoria historikoa berreskuratzea du helburu. Horretarako, indusketa- eta ikerketa-lanak egingo dira, 1937an Gerra Zibilak utzitako aztarnei jarraituz.

Lubakiak **Lemoatx** mendiko tontorrean daude. Bertan, bataila bat egin zen Gerra Zibilean. Aurkikuntza horiek inguruan eta bertako biztanleengan oihartzun handia dutenez gero, aurten aurreko urteetan induskatutako eremuak mantentzen, indusketa-lana egiten eta material berriak garbitzen eta ikertzen jarraituko da. Aranzadi Zientzia Elkarteak arduratzen da lana zuzentzeaz. <http://www.aranzadi.eus/>

Laudio

Laudioko auzolandegiak Gardeako Santa Kruz basiliza izango du ardatz, eta arkeologiaren hastapenak landuko dira **kanpoko eta barneko indusketa arkeologikoaren** bidez. Uztailaren 4tik 18ra bitarte egingo da, eta 20 plaza daude. Haietako bi dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat izango dira.

Indusketa arkeologikoa hainbat eremutan egingo da, Santa Kruz **tenpluaren** barruan zein kanpoan. Tenplua induskatu eta ezagutzeaz gain, bertako ingurunea eta historiaren garai desberdinetan izan duen okupazioa ezagutuko dira. Horretarako, ezinbestekoa da hainbat eremutan jardutea eta emaitzak ikustea: tenpluaren barnealdea, presbiterioa eta tenpluaren kanpoaldea.

Aldez aurretik, presbiterioko egungo zorua kendu beharko da, baita amortizazio-betegarriak ere, kanpoaldeko zundaketetan. Lehen fase hori egiten den aldiaren kontrol arkeologiko intentsiboa egingo da, egindako zundaketa bakoitza gainbegiratuko duten hiru arkeologia-teknikariren laguntzarekin. Jarduketa **arkeologikoa** gainbegiratzeaz gain, egindako prozesu guztiak (zundaketen

proiektzioa, indusketa, marrazketa eta erregistro testuala, grafikoa eta arkeologia-materialena) azalduko dizkiote arkeologoek sortutako lantaldeari.

Murueta

Muruetako auzolandegian, “La Dinamita” izeneko zamalekuaren ingurunea berreskuratuko da, uztailaren 4tik 18ra bitarte, 18-26 urteko gazteentzat (bi plaza dibertsitate funtzionala duten 18-30 urteko gazteentzat izango dira) eta uztailaren 18tik abuztuaren 1era 18-26 urteko gazteentzat, ingelesez (nazioarteko auzolandegia).

“La Dinamita” zamalekuaren ingurunea berreskuratzeko proiektu teknikoa hainbat fasetan garatuko da. Izan ere, antzinako La Dinamita zamalekutik geratzen diren instalazioek ondare-interesa dute eta kontserbatu egin behar dira beren balio historiko eta didaktikoagatik.

Lehen fasean, honako zeregin hauek egingo dira: itsasertzeko **ezponden** tratamendu puntuala egitea eta higadura kontrolatzea (horretarako, prestakuntza praktikoko ikastaro txiki bat egingo da bioinjeniaritzan), dagoen landarediaren tratamendua egitea eta landare inbaditzaileak kentzea, legez kanpoko elementuak eta eraikuntzak kentzea, dauden elementu eraiki batzuk garbitu eta finkatzea, eta ondare historikoaren balioa agerian jartzea.

Muxika

Muxikako auzolandegian, Ibarruriko Maume auzoaren balio soziala eta historikoa berreskuratuko da. Uztailaren 4tik 18ra bitarte egingo da, eta ingelesa izango da oinarrizko hizkuntza, nazioarteko auzolandegia baita. 18-26 urteko gazteek hartu ahal izango dute parte.

Hainbat mendetan, **Muxikako** biztanle guneak ez ezik Meseta eta kostaldea ere lotzen zituzten hainbat bide erabili izan dituzte bertako jendeak eta merkatariek. Proiektuaren helburua da antzinako bidexkak eta bideak berreskuratzea, herri handi horretako auzoak lotzeko baliagarriak izan daitezen.

Aurten, **Maumeko galtzada berreskuratzea** izango da jarduera nagusia, eta **Olea burdinola, Goikoetxea baserria eta San Lorenzo baseliza egokitzen eta haien ondare-balioa agerian jartzen** parte hartuko da. Halaber, inguruko basoetan lan egingo da, eta, horretarako, teknikarien laguntza jasoko da. Aurkitutako materialekin, erakusketa bat egiteko asmoa dago. Auzolandegi honetan, bereziki garrantzitsuak izango dira tokiko eta hurbileko produktuak, eta agerian jarriko da landa-ingurunearen balioa.

Otxarkoaga

Otxarkoaga-Bilboko auzolandegiak Otxarkoaga auzoko adinekoei zuzendutako aisia, astialdi eta sozializazioko jarduera-programa bat izango

du ardatz. Uztailaren 17tik 31ra bitarte egingo da, eta 18-26 urteko gazteek eta dibertsitate funtzionala duten 18-30 urteko gazteek hartuko dute parte. 15 plaza dira.

Biztanleriaren zehartze progresiboarekin batera, gero eta gehiago dira bakarrik bizi diren, oinarrizko beharrei erantzuteko zailtasunak dituzten eta/edo familia-edo gizarte-babeseke sarerik ez duten adinekoak. Horren ondorioz, isolamendu-egoerak sortzen dira, bizilekuetako **behartutako bakardadean** ikusten ez direnak.

Adinekoekin egingo den auzolandegi honetan, honako jarduera hauek egingo dira: **auzoko** jendea ezagutzeko dinamikak, postre- eta pintxo-lehiaketa, mahai-jokoak, bingoa, dantza, arteterapia, erosketak egiten laguntzea, paseatzea eta yoga, etxeko garbiketan laguntzea eta txangoak.

Sopuerta

Sopuertako auzolandegian, antzinako errege-galtzada egokituko da, auzoak herriko ikastetxearekin eta erdialdearekin lotzeko. Abuztuaren 1etik 15era egingo da. Auzolandegi horren helburua da antzinako errege-galtzada garbitzea eta egokitzea, eta, era horretan, auzoak herriko ikastetxearekin eta erdialdearekin lotzea, errepide nagusia erabili behar izan gabe.

Hazian Kultur Elkarteak eta Sopuertako Udalak bideragarritzat jo dute proiektua, eta hiru fasetan osatzeko aukera aztertzea erabaki dute (1. fasea: *Mercadillo* auzoa eta San Viator ikastetxea lotzea; 2. fasea: *Carral* auzoa - *Mercadillo* - San Viator; 3. fasea: *Gaztain-Castaño* auzoa - San Viator).

Parte-hartzaileek trazaduraren lehen fasea amaituko dute, eta bigarren fasearekin hasiko dira. Fase horren barruan, antzinako **errege-galtzada** atera, garbitu eta pertsonak eta mendiko bizikletak ibiltzeko moduan egokituko da.

Gorliz

Gorlizko auzolandegia Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetzari esker egingo da, eta 14-17 urteko gazteek hartuko dute parte. **Urezarantza** inguruko zubia berreraiki eta harrizko ikuztegia berreskuratuko da, abuztuaren 1etik 15era bitarte, gaztelaniaz eta euskaraz. Gainera, bi plaza dibertsitate funtzionala duten gazteentzat izango dira. Helburua da udalerriko ondare historikoaren balioa agerian jartzea.

Horretarako, aipatutako elementuak garbitu, sastraka kendu, egokitu eta berreskuratu egingo dira. Horrez gain, jarduera ludikoak, kultura-jarduerak (kostaldea eta hainbat hiri bisitatzea, txangoak egitea eta abar) eta kirol-jarduerak (mendi-ibiliak eta abar) egingo dira. Hainbat jarduera egiteko (ur-jarduerak, hondartzako jarduerak, kostaldeko pasealdiak eta abar), udalerrriak eskaintzen dituen baliabideak baliatuko dira.

Mugako auzolandegia (Euroeskualdea)

Pirinioetako Mugako auzolandegia (ABEN Euroeskualdea –Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa–) Baztan haranean dagoen **Otsondo** mendatean egingo da, eta memoria historikoa izango du ardatz. Horretarako, bunkerrak berreskuratuko dira Nafarroako Pirinioetan. Auzolandegia 2022ko abuztuaren 1etik 15era egingo da, eta 14-17 urteko 25 gaztek hartuko dute parte, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Lekua mendi artean dago, Otsondo mendatearen goialdean, Nafarroako iparraldean. Baztan haranaren parte da. Handik hurbil, Urdazubi eta Zugarramurdiko lezeak, Amaiurko Gaztelua, Elizondo, Arizkun, Sara, Dantzarinea, Erratzu eta abar daude. Oso hurbil daude, halaber, Donibane Lohizune, Hendaia, Hondarribia eta Biarritzeko hondartzak.

Inguruko larre, baso eta mendiek hormigoizko **bunker** eta barrakoien iragan bat gordetzen dute. Bunkerrak 1930eko hamarkadaren amaieraz geroztik eta 40 eta 50eko hamarkadetan eraiki ziren, eta diktadura frankistak Pirinioetan zehar milaka bunker eta egitura militar (10.000 baino gehiago) eta hainbat errepide eraikitzearen bidez muga ixteko eta gotortzeko egin zuen ahalegina islatzen dute.

Auzolandegian, Lapurdi, Zuberoako lurrez gain hegoaldeko babes-eremuak kontrolatzen dituzten bunker horietako batzuk **garbitu, berreskuratu eta dokumentatu egingo dira**, balio estrategiko handia dutelako egitura kopuru handia biltzen duen gune txiki batean, errepideak mugarako bidean Otsondo mendatea zeharkatzen duen lekuan. Lana osatzeko, gotorleku horien eraikuntzari buruzko azalpenak, garaiko dokumentazioa eta arkeologia-erregistroaren oinarritzko nozioak emango dira eta hainbat bisita egingo dira.

Esperientzia naturan egingo da, aire zabalean, eta parte hartzen dutenek udan Baztango herrietako kaleetan izaten den giroaz gozatu ahal izango dute. Gainera, aisia-jarduera osagarriak antolatuko dira. Parte-hartzaileek Baztan Gazteen Aterpetxean hartuko dute ostatu, Lekarotzen, Otsondo mendatetik 15 kilometrora.

	LEKUA	LURRALDEA	MODALITATEA	ESPARRUA	DATAK	PLAZAK
1	ARRAIA-MAEZTU	Araba	Arkeologia eta industria-ondarea berreskuratzea	Estatua	2022/07/18 – 08/01	20
2	LAUDIO	Araba	Ondare historikoa berreskuratzea eta ingurumena	Estatua	2022/07/04 – 07/18	20
3	SOPUERTA	Bizkaia	Ingurumena	Estatua	2022/08/01 – 08/15	20
4	LEKEITIO	Bizkaia	Adinekoen gizarte-dinamizazioa	Estatua	2022/07/18 – 08/01	20 txanda bakoitzean
					2022/08/01 – 08/15	
5	MURUETA	Bizkaia	Ondarea berreskuratzea	Estatua	2022/07/04 – 07/18	20
				Nazioartea	2022/07/18 – 08/01	20
6	BILBO	Bizkaia	Adinekoen gizarte-dinamizazioa	Estatua	2022/07/17 – 07/31	15
7	MUXIKA	Bizkaia	Ondarea berreskuratzea, ingurumena	Nazioartea	2022/07/04 – 07/18	20
8	ALONSOTEGI	Bizkaia	Ondarea berreskuratzea, ingurumena	Estatua	2022/07/04 – 07/18	20
9	ERANDIO	Bizkaia	Ondare historiko eta naturala berreskuratzea	Estatua	2022/07/04 – 07/18	20
10	LEMOA	Bizkaia	Ondarea berreskuratzea	Estatua	2022/08/01 – 08/15	20
11	BERGARA	Gipuzkoa	Adinekoen gizarte-dinamizazioa	Estatua	2022/08/01 – 08/15	20 txanda bakoitzean
					2022/08/15 – 08/29	
12	GORLIZ	Bizkaia	Ondarea berreskuratzea	Estatua	2022/08/01 – 08/15	20
13	OTSONDO/ BAZTAN / Lekarotz	Nafarroa	Ondare eta memoria historikoa berreskuratzea	Akitania Berria/ Nafarroa/Euskadi Euroeskualdea	2022/08/01 – 08/15	25 (8 EAEkoak)